


GIZARTE BAZTERKETA

114.000 lagun gehiago pobrezian

Gaindegiaren arabera, neurgailu guztiek erakusten dute Euskal Herrian pobrezia gora egin duela.

| EIDER MADINA BERASATEGI |



GAINDEGIAK *Pobrezia eta bazterketa Euskal Herrian* txostena kaleratu du. Bertan biltzen denez 2009tik hona, Euskal Herrian gutxienez 114.576 pertsona gehiago daude pobrezia egoeran.

Bi Estatuen arteko muga hartuta, Ipar Euskal Herrian pobrezia proportzioa altuagoa da, baina estatuak politika publikoen bitartez orkatzen du. Hego Euskal Herrian berriz, pobrezia bilakaera negati-

boa izateaz gain, oso azkar gertatzen ari da.

Eurostat-en datuen arabera, 2012an Euskal Herrian 520.416 pertsona zeuden pobrezia edo baztertzeko arriskuan, biztanleria osoaren %16,6. Batik bat EAEn eman da igoera hori. Horretaz gain, 2012an 317.199 pertsonak ordu oso gutxiko enplegua zuten. 2009. urtetik ia bikoiztu egin da egoera horretan dagoen biztanle kopurua.

Pobrezia Europako mapa

Europar Batasunaren neurgailuekin Gaindegiak mapa esanguratsua egin du. Bertan irudikatzen da Euskal Herria Europa mailan postu baxuan dagoela pobrezia dagokionean (%16,6). Dena den, ikerketen emaitzetan adostasunik ez dagoenez, pobrezia maila biztanleriaren %15 eta %30 artean kokatzen du Gaindegiak ■



Kalean da abenduko



aizu!

- Berragu, etxez etxeko liburutegia
- Herriko produktuak Ipar Euskal Herrian
- Durango, Azoka Hiria
- Maite Larburu arin-arin
- Artisauekin berbetan

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org